

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

ENTZUMEN PROBA

[A eredua]

1. ABIZENA	NAN zk.
2. ABIZENA	AZTERKETA EGUNA
IZENA	AZTERKETA TOKIA

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
ENTZUMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Entzungaien iraupena guztira: 12 min gehienez. 	35-40 min	20	10

■ **Irakur itzazu** ariketa bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

1. ariketa: aukeratu erantzuna

Hemengo turismoaren inguruko elkarrizketa entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

- 1. Zer hartu behar dugu kontuan turismoaz ari garenean?**
 - a) Sektorearen gainbehera.
 - b) Enplegua eta azpiegiturak.
 - c) Sektoreak mugitzen duen dirutza.
- 2. Zer gertatzen ari da bisitari kopuruarekin krisi-garai honetan?**
 - a) Asko igo da.
 - b) Galera handia egon da.
 - c) Ez da aldaketa nabarmenik egon.
- 3. Zenbat egun ematen dute bisitariak hemen?**
 - a) Iparraldeko barnealdean ia bi egun eta gainerakoetan bat eta gutxi gehiago.
 - b) Iparraldeko barnealdean egun bat eta gainerakoetan ia bi.
 - c) Iparraldeko barnealdean ia hiru egun eta gainerakoetan bat edo gutxiago.
- 4. Zer lurraldetan sumatzen da bisitarien beherakada?**
 - a) Nafarroa Garaian eta Araban.
 - b) Bilbo inguruan.
 - c) Gipuzkoan bereziki.
- 5. Zein da Gipuzkoako egoera?**
 - a) Ez du espero zen hazkundera izan.
 - b) Datu onak izan dituzte.
 - c) Beste lurraldeetan baino eragin handiagoa izan du krisiak.
- 6. Zenbat langile ari dira sektorean lanean?**
 - a) 20.000 langile ostalaritzan eta beste horrenbeste sektore osoan.
 - b) 20.000 langile, erregistratuta ez daudenak barne.
 - c) 20.000 langile erregistratuta eta beste hainbat zeharkako lanetan.
- 7. Nolakoak dira sektore honetako langileen lan-baldintzak?**
 - a) Industriak eskatzen dituenak baino hobeak.
 - b) Industriak eskaintzen dituenak bezain onak.
 - c) Ez dira industriak eskaintzen dituenak bezalakoak.
- 8. Zer da aktibitate ekonomiko honen erronka?**
 - a) Urte osokoa izatea.
 - b) Lan-baldintzak malguak izatea.
 - c) Aktibitate erregistratua izatea.
- 9. Zer da ezinbestekoa turismoaren kontraesanei aurre egiteko?**
 - a) Diru-laguntzak, turismoa aktibitate bakarra izateko.
 - b) Aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa.
 - c) Turismoan oinarritzea aktibitate ekonomikoa.

2. ariketa: lotu hitza dagokion esaldiarekin

Asmari buruzko informazioa izango dugu entzungai jarraian

- Testua bi aldiz entzungo duzu.
- Entzuten hasi aurretik 1 min duzu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu ondoren, 1 min duzu erantzuteko.
- Bigarren aldiz entzun ostean, beste 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten, baina lehenengo entzunaldian ez erantzutea aholkatzen dizugu.

10.	Bronkioetako muskuluak	A.	Gaitza ez da sendatzen, baina momentuko krisirako konponbidea.
11.	Asma	B.	Gauetan eztula eta arnasa-arazoak edo lo egiteko arazoak izaten dira.
12.	Kutsadura	C.	Arriskutsua ez den substantzia baten aurrean gehiegizko erantzuna.
13.	Larritasuna	D.	Ez du gaixoaren eboluzioan eraginik, jendeak kontrakoa pentsatu arren.
14.	Krisi txikiak	E.	Beharrezko botika hartuta ere, berehalako erantzunik ez dagoenean.
15.	Botika bronkio-zabaltzaileak	F.	Arriskutsua izan daitekeen substantziaren aurrean babes naturala.
16.	Botika inhalatuak	G.	Gaitzarekin lotura zuzena omen du, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta garatzeko arrisku gehiago.
17.	Esnea	H.	Kortikoideek ez dute hezurretan efektu txarrik.

■ **Idatzi dagokion hizkia ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:**

Hitzak	10	11	12	13	14	15	16	17
Esaldiak								

3. ariketa: aukeratu erantzuna

Ordutegi-aldaketari buruzko informazioa entzungo duzu jarraian.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

18. Zertaz hitz egiten du berriemaileak?

- Diputatuen Kongresuko batzordeen ordutegi-aldaketaz.
- Kongresuko Berdintasun Batzordearen proposamenaz.
- Berdintasun Batzordeak Kanarietarako onartu duen proposamenaz.

19. Zer egin du Batzordeak?

- Familia eta lana bateratzeko neurriei buruz hitz egin.
- Kongresuko ordutegien gainean eztabaidatu.
- Hurrengo bederatzi hilabeterako ekimenak zehaztu.

20. Bat-bateko erabakia izan da?

- Ez, Kongresuan lehenago egin zen bozketa oinarri hartu dute.
- Ez, adituen aholkuak kontuan hartu dituzte.
- Ez, 60 batzordekideren aldeko botoan oinarritu dira.

21. Zein da proposamena?

- Eguzkiarekin bat egiteko, ordubete aurreratzea.
- Besteak beste, ordu ofiziala atzeratzea.
- Estatuko ordua bi ordu aurreratzea.

22. Zer dio txostenak dendei buruz?

- Euskal Herrian Madril bezala jokatzeko komeni dela.
- Igandeetan ere zabaltzea aholkatzen du.
- Ordutegiak murriztea proposatzen du.

23. Zer bozkatu dute alderdiek?

- Alderdi guztiak abstenitu egin dira.
- Batzuek aldeko botoa eman dute eta beste hiru taldek kontrakoa.
- Batzuek baiezkoa eman dute eta beste batzuk abstenitu egin dira.

24. Zein izan da alderdien erantzuna?

- Denek aho batez onartu dute txostenak dioena.
- Alderdi batzuek zalantzan jarri dute proposamenaren benetako eragina.
- Lan-erreformen abantaila onartu dute, baina berdintasun-legea ez dela guztiz betetzen diote.

25. Zer bide egingo du proposamenak?

- Kongresuak onartu ondoren Espainiako Gobernuari dagokio azken erabakia.
- Espainiako Gobernuak urriaren 10ean onartzea falta da.
- Kongresuko Osoko Bilkuran erabakiko da zer bide hartuko duen proposamenak.

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** “Turismoa Euskal Herrian”

1.	B	2.	C
3.	A	4.	A
5.	B	6.	C
7.	C	8.	A
9.	B		

■ **2. ariketa:** hitzak eta esaldiak lotu.

■ **Entzungaia:** “Asma”

Hitzak	10	11	12	13	14	15	16	17
Esaldiak	F	C	G	E	B	A	H	D

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** “Albistea: ordutegi-aldaketa”

18.	B	19.	A	20.	B
21.	B	22.	C	23.	C
24.	B	25.	A		